

DIRU-ITURRIAK

Gure enpresan, gure diru-sarreraren iturriak hainbat alderditatik datoz. Diru-sarrera nagusiak zuzeneko bezeroei emandako zerbitzuetatik datoz, hau da, gure saioak banaka kontratatzen dituzten pertsonetatik. Baita beren terapien osagarri gisa zerbitzu espezializatuak bilatzen dituzten osasun-erakundeak ere, adibidez, "Mentalia Salud", gurekin harremanetan dagoen enpresa. Enpresa espezializatuta dago osasun mentalean nahasmenduak dituzten pertsonei arreta ematen, eta DomusViren parte da, Espainiako zerbitzu soziosanitarioetan liderra. Gainera, IMQ eta Osakidetza. Hala ere, osasuna lantzeaz gain, Euskal Herriko ikastetxeekin ere lan egiten dugu.

Bestalde, finantzatzaile pribatuak eta dirulaguntzak gure proiektua aurrera eramateko diru-sarreraren zati bat dira. Terapietan errealitate birtuala erabiltzean, finantzatzaile gehienak teknologiarekin lotuta daude. Negozio-aukera berriei ateak ireki diezazkiekete, bereziki inpaktu-inbertsioetara bideratutakoei, eta askotan gizarte-aldaketa positiboa eragin dezaketen proiektu berritzaileetan interesa dute.

Versia gure finantzatzaile pribatua da, informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko aholkularitza, proiektu eta zerbitzu integraletan bideratua. Horiei esker, beste dirulaguntza batzuekin batera, gure proiektua gauzatu ahal izan dugu.

Dirulaguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzatik, Espainiatik eta Europatik datoz. Euskal Autonomia Erkidegoan "Industria Digitala 2024" dago, eta urtean 23.000 €arte eskaintzen ditu enpresa bakoitzeko, errealitate birtuala ezartzeko proiektuetarako eta beste gauza batzuetarako. Era berean, "Elankidetza" Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia dago, tokiko ekimenak eta ongizatean oinarritutako proiektu komunitarioak indartzeko dirulaguntzak eskaintzen dituena. "SPRI TALDEA: Adimen Artifizial Aplikatua eta 2024ko Datuaren Estrategia" dirulaguntzaz gain, adimen artifizialeko proiektu komertzialak babesten dituzte.

SPRI TALDEA:

<https://www.spri.eus/es/ayudas/inteligencia-artificial-aplicada-y-estrategia-del-dato/>

ELANKIDETZA:

https://www.elankidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/planificacion_avcd/es_def/03.-PES_2024_eLankidetza.pdf


Gure enpresa bat da Elankidetzaren helburuekin, errealitate birtualeko ikuspegiak nerabeen antsietate-arazoak konpontzen laguntzen duela frogatzean, ongizate emozionala eta soziala sustatuz. Gainera, tokiko erkidegoetara bideratuta dagoenez (Barakaldora, esaterako), proiektua bat etor liteke komunitate-laguntzako eta garapen iraunkorreko ildoekin.

Estatu mailan "Osasun Ministerioa eta Osasun Mental Nazionalako Estrategia" dago, Osasun Ministerioaren dirulaguntza bat, nerabeen osasun mentala indartzeko estrategiak ezartzen dituena, estresaren eta antsietatearen tratamenduan berritzen duten proiektuetarako finantzaketa espezifikoarekin.

https://www.sanidad.gob.es/areas/calidadAsistencial/estrategias/saludMental/docs/PLAN_ACCION_SALUD_MENTAL_2022-2024.pdf

Azkenik, Europa mailan, Europako Funtsak sustatzen dituen berrikuntzagaratiko eta osasun komunitarioagaratiko dirulaguntza dago. Laguntza-zerbitzu komunitario berritzaileetan oinarritutako proiektuak bilatzen dituzte, hala nola terapia psikologikoetarako teknologia erabiltzea.

DIRU-ITURRIAK	EHUNEKOAK
Zuzeneko bezeroak	%50
Osasun-erakundeak	%25
Ikastetxeak	%10
Finantzatzaile pribatuak	%5
Dirulaguntza publikoak	%10



Zuzeneko bezeroak: egonkortasuna sortzen dute eta terapiak ezartzeko talderik hurbilena dira.

Osasun-erakundeak: eskalagarritasuna ziurtatzen dute, eskala handiagoko akordioen bidez.

Hezkuntza: Nerabe gehiagorengana iristea eta antsietatea prebenitzea ahalbidetzen du etapa goiztiarretatik.

Finantzatzaile pribatuak eta dirulaguntzak: Funtsezkoak dira irismena hasteko eta zabaltzeko, baina ez dira diru-sarrera errepikariak.